

Ustelak erdi ustel

Eguneroko sagar ustelak. Goizero egunkariaren aurrean gosaltzen ditugu kafe eta tostadorekin batera. Gaur Barcenak, bihar CAN, etzi Noos, FIFA Gate, De Miguel, Gurtel, Taula, ate birakariak, paradisu fiskalak... guztiak aipatzeko ez dira aski orrialde honek eskaintzen dizkidan karaktereak. Zerrenda luzea izanagatik, arazoa egiturazkoa dela ukatzeko ahalegin handiak egiten dituzte han eta hemen. Sagar horiek kenduta akabo arazoa, hori da sinestarazi nahi digutena.

Baina saskia da ustel dagoena. Ez dira erauzi beharreko kasu isolatuak. Ez dira soilik alderdien barruan legez kontra aberastu diren pertsona bidegabeak. Egiteko modu bat da, alderdi politiko eta erakunde publikoetan ohikoa izan den egiteko modua. Berdintsu gertatzen da paradisu fiskalekin, zergak ez ordaintzeko antolatutako sareak dira, erakunde edo enpresari zehatzen iruzurretik harago doazenak.

Espainiako Estatuako estamentu guztiak hezurretarainoko kiratsa dute aspalditik. Ez da kasualitatea barne-kohesioa mantentzeko estatu-gai izan diren Nafarroa eta Valentzian orain arte egon den neurritz kanpoko inpunitatea. Alta, urteetako isiltasunaren ostean, tropelean ari dira agertzen orain kasu guztiak. Hainbeste, ezen leherketa programatuaren itxura ere baduten. Estatuak jausi aurretik hobe birmoldatzea. Gogoan izan dezagun Juan Carlos erregearen abdikazio espresa.

Irudi lezake ustelkeria-uholde honek jendartearen samindura eragin eta arazoa konpontze bidean jarriko duela, baina orain arteko zenbait sintoma oso bestelakoak dira. Batetik, egunez egun hainbeste kasu ikusteak nolabaiteko txerto-efektua ekarri du, etsipenaren poderioz albiste larriena ere normaltasunaren barruan jasotzen dugu. Bestetik, ustelkeriaz lepo dauden alderdiek



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Ustelaren eta ustelkeriaren ifrentzuan kudeatzailea eta kudeaketa-eredua daude. Militante oso zintzoak ezagutzen ditugu, politika jendarte justuagoa eraikitzeko tresna gisa ulertzen dutenak. Guztiak zaku berean sartuta kudeaketarako modu alternatiborik ez dagoela pentsatzera eraman nahi gaituzte

orokortzera jo dute: "Alderdi guztietan dago ustelkeria" eta "politikari guztiak dira berdinak" lelopean. Eta ez da egia. Ustelaren eta ustelkeriaren ifrentzuan kudeatzailea eta kudeaketa-eredua daude. Militante oso zintzoak ezagutzen ditugu, politika jendarte justuagoa eraikitzeko tresna gisa ulertzen dutenak. Guztiak zaku berean sartuta kudeaketarako modu alternatiborik ez dagoela pentsatzera eraman nahi gaituzte.

Ezin dugu ahaztu ustelkeria kapitalismo neoliberalaren gaitz endemikoa ere badela. Fokua asko bideratzen da ustelengana eta gutxi usteltzaileengana. Enpresen eta kapitalen arteko gupida gabeko lehian, irabaziak handitzeko zirrikitu guztiak baliatzen dira, erabaki guneetan dauden kargu publikoengan eragitea barne. Gaur egun botere politiko eurotan zenbatzen da. Horren zantzuak ikusteko ez dago urrutira joan beharrik, guztiok ezagutzen dugu inguruko udaletan egindako amarru bat edo beste, direla entxufeak, lurren birkalifikatzeak edo adiskidekeriaz egindako lizitazio publikoak.

Hartara, ustelkeriari aurre egiteko administrazio publikoaren kontrola eta gardentasuna areagotzeaz gain, enpresen demokratizazioa ere funtsezkoa izango litzateke. Gardentasun hori enpresa munduari ere exijitu behar zaio. Langileek kudeaketan parte-hartze aktiboa izatea izan daiteke horretarako bide bat, ondo funtzionatzen duten kooperatiben gisara. Bi aldeetan kontrol zorrotzagoa ezarri ezean, gurpilak norabide berean jarraituko du biraka, eta lantzean behin herri xeheari "kasu" bat emango digute, ustelek dagokiena ordaintzen dutela itxurak egiteko unean uneko petzeroa. Elite politiko eta ekonomikoen kezka ez baita sistema ustela izatea, hain ondo doakien sistema usteltzea eta zalantzan jartzea baizik. ■